

AKORDIOA, 2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOKION ENPLEGU PUBLIKOA EGONKORTZEKO EZHOIKO ETA OHIKO PROZEDUREN BIDEZ LAN KONTRATUDUN FINKOA IZATEKO HAUTAKETA PROZESUKO EPAIMAHAIARENA, DEIALDI ESPEZIFIKO BAKOITZAREN BEHIN-BEHINEKO AZKEN KALIFIKAZIOA ONARTZEN DUENA. 2022ko URRIAREN 20ko EBAZPENAREN BIDEZ EGIN ZEN DEIALDIA.

I. eranskineko 8.6 oinarri orokorrak honako hau, deialdiari dagokionez, ezartzen du: *“Deialdi espezifikoko bakoitzeko azken kalifikazioa izango da lehiaketako puntuazioen eta euskarako puntuazioaren batura. Kalifikazioak unibertsitateko webgunean argitaratuko dira puntuazioaren arabera hurrenkeran, bakoitzari dagozkion izen-deiturekin eta nortasun agiriko, atzeritarren identifikazio zenbakiko, pasaporte edo pareko dokumentuko ausazko lau zifrarekin.*

Hautagaien artean berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek ordena honetan aplikatuz erabakiko da hurrenkerak:

- 1) *Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazioko lan esperientzian, deialdiko talde, kategoria eta espezialitate berean, egunka kontatuta eta mugarik gabe.*
- 2) *Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazioko lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.*
- 3) *Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.*
- 4) *Puntuaziorik handiena merezimendu profesionalen atalean.*
- 5) *Puntuaziorik handiena hautaketa prozesuen atalean.*
- 6) *Puntuaziorik handiena lan poltsen atalean.*
- 7) *Puntuaziorik handiena beste titulazio ofizialen atalean.*
- 8) *Puntuaziorik handiena EAEko hizkuntza ez ofizialen atalean.*
- 9) *Berdinketa apurtu ez bada, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia %40ren azpitik dagoen administrazioko talde, kategoria eta espezialitateetan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko edo lanean gora egiteko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.*
- 10) *Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta daudenean artean UPV/EHUk egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkerak ezarriko da.”*

Azaldutakoaren arabera, epaimahaiak hautagaiak ordenatu ditu, oinarrietan berdinketa hausteko ezarritako irizpideak aplikatuz.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Horrenbestez, hautaketa-prozesu honetako epaimahaia bilduta, eta adierazitako oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat etorrituz, honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.- Txanda irekiko gaindituen behin-behineko azken kalifikazioa onartzea, lortutako puntuazioaren arabera eta hautaketa-prozesuko fase guztietako nota partzialak jarrita.

BIGARRENA.- Horretarako gaitutako UPV/EHUko web-orrian eta UPV/EHUko enplegu-atarian iragarkia argitaratzea (https://gestionenplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp); gaindituen behin-behineko kalifikazioaren zerrenda hori kontsultatzeko.

HIRUGARRENA.- Zazpi (7) egun baliioduneko epea zabaltzea, erabaki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hautagaiek erreklamazioak egin ditzaten, hala badagokio, bidezko erreklamazioa egin dezaten UPV/EHUren egoitza elektronikoan (<https://egoitza.ehu.eus/es>) eta 5.3 oinarri orokorrean azaldutako lekuetan.

Leioan, sinaduraren datan.

Epaimahaiko idazkaria